

Epaitegietako itzultzaile eta interpreteak

“ Itzulpena, kasurik onenean ere oihartzun soila izango da asko jota”

George Borrow

1-Ulermenaren beharra

Pertsona fisiko zein erakunde edo administrazio desberdinekin, ofizialki tratatzean, ulermen egokia, tresna garrantzitsua eta erabakiorra izan daiteke. Gure ideia eta arrazoiak ondo prestatzea eta arrazoitzea bezain garrantzitsua izan daiteke, hauek modu argi eta egokian adieraztea.

Gaur egunean, gero eta ohikoagoa da idatzizko komunikazioz gauzatzea, harremanok, garai bateko, komunikazio idatziak (gutunak), e-mailak edo antzeko, tresna elektronikoen ordeztuz doazelarik.

Hartu eman fisiko hori eremu birtualera eramateak, oraindik eta hobeki egitea eskatzen du, adierazpen idatzi batean, elkarrizketa batek dituen, ahozkoak ez diren adierazpen guztiak kendu behar ditugu, horregatik modu argi eta garbian adierazi behar da, transmititu nahi dugun ideia.

2- Ulermen arazoak

Ulermen arazoak izan ditzakegu, kasu honetan, ez adierazpen oker bategatik, transmititzeko arazoengatik, arazo hauek, arituko garen gaietan, hizkuntza desberdintasunengatik izango dira. Prozedura zibileko legeak bere 142. eta 143 artikuluetan argi adierazten du, pertsona bat ez bada gai, Espainiar estatuko hizkuntza ofizialean mintzatzeko edo ez bada bere burua, gazteleraz egoki defendatzeko aukera ikusten, posible du interpretea eskatzea.

Idazkari judizialak dekretu bidez onartu edo ezeztatu du eskaria. Onartuko balitz, printzipio batean eskatu den hizkuntza ezagutu eta nabarmen kontrolatzen duen pertsona oro izan ahalko da interpretea. Hau ein haundi batean, lehen momentua eman daitezkeen arazoak konpontzera bideratua dago, zaila izaten da eta hizkuntza batzuen kasuan, profesionalki hortara zuzendua dagoen jendea bilatzea.

Interprete gisa jardungo duen pertsona horri, zin egitea eskatuko zaio, behin baldintza hori beteta bere lana hasi ahalko du.

3- Itzultzaile edo interprete profesionala

Auzitegietaiko itzultzaile edo interprete profesionala, ofizioz itzulketak edota interprete lanak, egitetik bizi den pertsona izango da.

Desberdintasun bat egin beharra dago, itzulpen judizialen eta zin egindako itzulpen edo itzulpen juratuen kasuan.

Itzulpen judizialak erantzukizuna sor dezake, itzultzaileari egotzi ahalko zaizki olarik, akats edota narriadurak. Zin egindakoak aldiz ez du erantzukizunik sortuko, kalte edo narriadura hori asmo edo dolo osoz gauzatu denean salbu. Biak zigilatuta eta, itzultzailearen datuekin aurkeztu behar dira.

Itzultzaile eta interprete profesional hauek auzitegieta jarduteko, oposaketa batzuk gainditu behar izaten dituzte, oposaketa hauetan hizkuntza gaitasunak aztertzeaz gain, ulermena, gaitasunak, abiadura... Esparru edo materia desberdinetako gaiak sartu ohi dira, zuzenbideak bere pisua duelarik oposaketa horiek aurrera ateratzean.

3.1 Itzultzailea

Itzultzailearen lana, dokumentu eta idazkiak itzultzea izan ohi da, auzitegiek gazteleraz jarduten dute gehien bat, hala ere posible da, autonomi erkidego bakoitzeko, hizkuntzan zuzentzea auzitegieta. Hau betiere autonomi erkidego hortan, hizkuntza koofizialen bat balego. Hizkuntz horretan gauzatutako idazki horiek, gazteleraz gauzatutakoen balio eta efikazia bera izango dute, baina beste autonomi erkidego batean efektuak sortu behar badituzte, ofiziozko itzulpena gauzatuko da, beti ere beste autonomi erkidego hortan hizkuntza hori koofiziala ez bada. Itzulpen hori gauzatu beharko da baita ere legeek ala eskatzen badute edo aldeetako batek defentsa gabezia alegatzen badu.

3.2 Interpretea

Interpretea ofiziala izan daiteke, gehienetan ordea pertsona bat dekretuz izendatzen du idazkari judizialak. Hizkuntza ezezaguna zaion pertsona orok eskatu ahalko du interpretea, edozein gauzaperentarako, testigantza emateko, auziperatzeko... Idazkari judizialari dagokio aztertzea, interprete judizialaren behar hori, bere ezagueraren eta “ epaitze onari” jarraituz. Hala ere eskatuz gero, normalean eman ohi da, ez emateak, “ defentsa gabezia” egoera bat sor dezake eta.

4- Gaitasunak

4.1 Itzultzailearen gaitasunak

Itzultzailea gai izan behar da, dagokion hizkuntzan dokumentuak itzuli eta hauek ahalik eta aldaketa gutxien eginda emateko. Epaitegietaiko itzultzaileak erantzukizuna izan dezake dokumentuak gaizki itzultzean, kaltetutako aldeak hori alegatzen badu edota

epaitegiak ofizioz apreziatio hori egingo balu. Beraz, garrantzia nabarmenekoa da lan hori egoki egitea, erantzukizuna eskatzen zaie eta.

Bestalde sarritan itzultzaileak darabilten arloko jakintza gutxieneko bat izan behar dute, eginbideak modu egokiagoan gauzatu ahal izateko, kontestuaren edo gaiaren ulermen egoki batek, itzulpen hobea bideratuko duelarik. Gaiari legoa izatea halere ohikoa izan ohi da, horregatik beharrezkoak iruditzen zaizkien kontsultak egin ahal izango dituzte.

4.2 Interpretarearen gaitasunak

Interpreteak gai izan beharko du, eskatzen zaion hizkuntzan, alderdiak eskeinitako testigantza, hizkuntza ofizialean emateko, hau da gai izan behar da, ulermen arazoa duenak adierazitakoa modu argi eta egokian emateko.

Beraz beharrezkoa du, pertsona hori mintzatzen den hizkuntza guztiz menperatzea eta beste aldetik, gai izan beharko du baita ere, unean esandakoa, denbora tarte labur batean itzuli eta transmititzeko.

Beraz nolabaiteko azkartasun bat beharko du hizkuntzaren erabileran, denborarekin edo eskolekin lortzen den trebetasun maila bat.

5- Itzulpen eta Interpretazio eskolak

Itzulketa eta interpretazio beharrak gero eta handiagoak bilakatuz joan diren einean, inguru akademiko batetik, erantzuna emateko beharra ikusi da, horregatik sortu dira, Itzulpen eta Interpretazio eskolak.

Itzulpen eta Interpretazio eskola hauek unibertsitate-mailakoak izan ohi dira, bertan ikasleek, hizkuntza desberdinak ikasi eta trebatzeaz gain, itzulpengintza eta interpretaritza gauzatzeko, beharrezkoak dituzten gaitasun eta trebetasunak lortu ohi dituzte.

Unibertsitate eskola hauetan ikasleei hizkuntza desberdinen artean aukeratzeko aukera ematen zaie, beraien aurretiazko ezagupenen edo interesen arabera aukeratu ahaliko dutelarik hizkuntza.

Hizkuntzen irakaskuntza hori, itzulpenak egiteko teknikekin eta interpretazio teknikekin batzen dute, etorkizunean gauzatuko duten lanarekin zerikusirik zuzena izango duten eginkizunak betez. Kasu batzuetan, unean-uneko, itzulpenak egiteko tresnerian trebatuko dira, konferentzia epaitegi eta abarretan, topa daitezkeen, interpreteen “kaxak”, alegia. Trebezia nabarmena eskatzen duen lana izango da hau eta guztiz beharrezkoa, epaitegietara begira, pertsonen mugimendua eta Schengen espazioa direla eta hizkuntza desberdin gero eta gehiago entzun daitezke eta epaitegietan. Horrek sarritan geldiaraztea suposake dezake, aurretiaz aipaturiko “ babesgabezi egoera” dela eta. Horregatik, beharrezkoa da oso, unibertsitate-eskolek, lizentziatuak plazaratzea, interpreteen falta nabarmena dela eta.

Hala ere ikasketa hauek gauzatu ahal izateko, selektibitate edo baxoaz aparte, beste hautaproba batzuk gainditu behar dira.

EAEri dagokionez, hautafroga horiek Gasteizko Itzulpen eta interpretazio eskolan gauzatu ohi dira, bertan aurretiazko trebetasun batzuk neurtzen dituzte. Neurtze hau hiru frogen bitartez gauzatzen da:

1- Ahozko ulermena eta transkripzioa

Hitzaldi bat gauzatuko da, hautagaiak deritzoten oharrak har ditzakete, ondoren jasotakoarekin eta oharrekin, testu bat garatu beharko da, tarte neurtu batean.

2- Testu itzultzea

Bigarren froga honetan, hautagaiari testu bat aurkeztuko zaio, ingeleraz edo frantzez hautatze-askearekin. Behin testua irakurrita, itzulpenak egin beharko dira, gaztelerara edo euskerara, nahiz eta sarritan bietara egin ohi den, hautafroga hobetzeko asmoz.

3-Ahozko gaitasuna

Azken froga, ahozko gaitasunarena izango da, hautagaiari testu bat emango zaio testu hori landu ostean, ahozko azalpen bat eman beharko du, denbora neurtu batean.

Froga hauen emaitzek, hautagaia gai edo ez gaitzat emango dute eta behin baxo edo selektibitateko notak ahalbidetzen badu, ikasketak has ditzake. Ikasketak lau urtetakoak izan ohi dira.

5- Interpretaren jarrera bezeroarekiko

Auzitegietan, bat-bateko itzulpenak gauzatzean, egoera deserosoak sortu ohi dira, hori dela eta interpreteak jarrera positibo bat bilatu behar du bere bezeroarekiko. Bere bezeroa lagundu behar du, baina egoera neutral batetatik, hau da ezin du baloraziorik edota gomendiorik eman, tresna huts bat da. Bestalde bezeroari ez dio prisarik eman edo presiorik egin behar, askatasun osoz adierazten utzi behar dio, hitzak neurtuz eta ahal den neurrian kontestu eta tonu egokiak transmitituz. Bestalde, dudako kasuetan, bezeroari inguruabarren bat galdegin diezaioke, konturen bat argi geratu ez bada, hau

modu egokian transmititzeko. Bestalde, organu judizialek zein beste alderdiak gauzatutako galderak modu argi eta egokian adierazi beharko dizkio bezeroari.

JON ARANBARRI